

Bizkaiko herritarro

Bizkaiko egoitzetako langileok herritarro azaldu nahi dizuegu zein diren gure gatazkaren arrazoiak. Orain arte 70 egunez greba egin dugu. Bada, grebaren helburua bakarra da: Bizkaiko zahar-egoitza eta eguneko zentroetan pertsona guztien duintasuna bermatzea, erabiltzaile zein behargin direla ere.

Azken urteetan administrazioek, batik bat Bizkaiko Foru Aldundiak, egoera jasanezin honetara ekarri gaituzte, behin eta berriz aurrekontuak moztu eta pribatizazio politika garatu dutelako. Erresidentzietan langile eskasia eta egun indarrean diren lan-baldintzek ez dute bermatzen gutxieneko arreta duina ematea.

Egoera hau, batetik, langile garen aldetik pairatzen dugu; gure lan-baldintzak oso gogorak dira (lanaldi partzialeko kontratuak, noiznahi lanerako prest egon beharra, zerbitzu kronometratuak, 1.000 euro inguruko soldatak...). Gainera, azpikontratatuta ez dauden langile publikoen aldean diskriminatuta gaude (%60tik gora soldatetan eta 100 ordu gehiago urtean). Bestalde, pertsona gisa ere erabiltzaileen eguneroko bizimodua ikusten dugu; zoritxarrez, baina, ezin diegu behar beste denbora eskaini, ezta merezi duten arreta eman ere (hau Aldundiak berak egindako txostenek ere agerian utzi dute). Ondorioz, langileok erabaki dugu borroka egitea eta behargin zein egoiliarren arazoa kalean ikusaraztea: pertsonal ratioak jasangaitzak dira; aldatu egin behar dira bizi-kalitate duin bat bermatuko bada.

Haatik, sektoreko patronalei ez zaie axola zentroetan bizi den egoera. Tematuta daude lan-baldintzak prekarizatu eta administrazioak finantzatzeko plazak gehitzearekin, horrela beren etekin handiak areago puzteko. Zenbait datu:

- **Aita Mennik** -sektorean 300 langile- 1,5 milioi irabazi zituen 2012-2014 epealdian;
- **Grupo Igurcok** -320 langile sektorean-, 3,1 milioiko etekinak lortu zituen 2014 eta 2015ean;
- **Sanitasek** -Bizkaian 300 behargin dituelarik-, 2,1 milioi 2012-2014 bitartean.

Bestalde, honez gero Bizkaiko Foru Aldundiak, egoeraren ardura nagusia duenak, zerbitzu publiko pribatizatu hau %70 finantzatzen duen heinean, ez du ezer egin gatazka bideratzeko; areago, gaiztotu egin du sektoreko patronalei babesa eman eta greban dauden langileak kriminalizatuaz.

Patronalei eta Aldundiari exijitzen diegu gure eskariak aintzat har ditzatela: plantillak gehitu, lan-kargak arindu eta kolektiboaren lan-baldintzak hobetu behar dira. Hala ez bada, geure borondatearen kontra gatazka nahi baino gehiago luzatuko da.



A la ciudadanía de Bizkaia

Las trabajadoras de las residencias de Bizkaia queremos compartir con la ciudadanía los motivos por los que llevamos ya 70 días de huelga. La huelga tiene un único motivo: lograr que se garantice la dignidad de todas las personas, tanto usuarias como trabajadoras, en las residencias y centros de día de Bizkaia.

En los últimos años, los recortes presupuestarios y la política privatizadora impulsada por las distintas instituciones, especialmente la Diputación Foral de Bizkaia, nos han llevado a una situación insostenible. En las residencias la falta de personal y las actuales condiciones laborales hacen que no se garantice una calidad asistencial digna.

Padecemos esta situación, por un lado, como trabajadoras, ya que tenemos unas condiciones de trabajo muy duras (contratos a tiempo parcial, disponibilidad absoluta, servicios cronometrados, salarios en torno a 1.000 euros...). Además, estamos discriminadas respecto de las trabajadoras públicas no subcontratadas (hasta un 60% en el salario y 100 horas más de jornada).

Por otro lado, como personas convivimos con los usuarios y vemos con tristeza que no les podemos dedicar el tiempo, ni la asistencia mínima necesaria para garantizarles la atención que se merecen, como han puesto de manifiesto incluso informes de la propia Diputación. Las trabajadoras hemos decidido luchar y estar en la calle haciendo visible un problema que afecta a trabajadoras y residentes: los ratios de personal son insostenibles; tienen que modificarse para garantizar una calidad de vida digna.

Sin embargo, a las patronales del sector no les preocupa la situación que se vive en los centros. Su obsesión es precarizar las condiciones laborales y aumentar el número de plazas financiadas por la administración, para así seguir aumentando sus grandes beneficios. Ejemplos de estos beneficios:

- **Aita Menni** -300 trabajadoras en el sector-, 1,5 millones de beneficios en 2012-2014;
- **Grupo Igurco** -320 trabajadoras en el sector-, 3,1 millones de beneficio en dos años (2014-2015);
- **Sanitas** -300 trabajadoras en Bizkaia-, 2,1 millones de beneficio en el periodo 2012-2014.

Por otro lado, hasta la fecha la Diputación Foral de Bizkaia, máxima responsable de la situación, ya que financia en un 70% este servicio público privatizado, no ha hecho nada para solucionar el conflicto; es más, ha contribuido a enquistarlo limitándose a dar cobertura a las patronales del sector y criminalizar a las trabajadoras en huelga.

Exigimos a las patronales y a la Diputación Foral que atiendan nuestras demandas, incrementando las plantillas, reduciendo las cargas de trabajo y mejorando las condiciones laborales del colectivo. De no ser así -aunque no tenemos ninguna voluntad de ello- el conflicto laboral y social se alargará en el tiempo.



ELA
EUSKAL SINDIKATUA